



ARANGUREN IBARREKO UDALAREN INFORMAZIO-BULETINA

# INGURUMEN ZERBITZUA

NATURGUNEA

[www.aranguren.es](http://www.aranguren.es)



## DIBULGATZEA ERE BADA KONTSERBATZEA

### INFORMAZIO GEHIAGO

**20R →** MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA

**30R →** NAFARROAKO KLIMAREN ASTEA 2026


**30R →** HONDAKINEN PREBENTZIOAREN  
EUROPAKO ASTEA

**30R →** ARANGUREN IBARREKO INGURUMEN-ARGAZKIEN  
LEHIAKETA 2026

**40R →** HURRENGO JARDUERAK: INGURUMEN AGENDA

**80R →** ARANGUREN IBARRA ZORIONTSU PROGRAMAREN  
BESTE HAINBAT JARDUERA


## DIBULGATZEA ERE BADA KONTSERBATZEA



Biodibertsitatea zaintzeko, lurra bera zaintzeko jarduerak egin behar dira, baina, horrez gain, beharrezkoa da jendeak bere inguruko biodibertsitatea ezagutzea, haren garrantziaz ohartzea eta parte hartzea.

Ingurumen Zerbitzuak hegazti, saguzar, sorgin-orratz, narrasti, tximeleta eta orkideak ikertzeko eta kontserbatzeko egiten dituen proiektuen artean, bada urte guztiko ingurumen-hezkuntzako eta prestakuntzako programa bat. Programa horren barnean, tokiko biodibertsitatea ezagutzeko eta kontserbatzeko jarduera ugari egin ditugu: gaueko eta eguneko behaketak, ibilaldi gidatuak, eraztunak jartzeko saioak, tailerrak eta ingurumen-jardunaldiak. Publiko orokorrari, ikastetxeei eta jubilotekari zuzenduak egon dira, eta guztira 350 lagunek parte hartu dute.

## MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA



**ESKOLARA, BIZIKLETAZ EDO PATINETEZ! MUGI IKASTETXEAK PLANETAREN ALDEA**

Ikastetxeak gonbidatzen ditugu Mugikortasunaren Europako Astea ospatzera. Mugikortasunarekin loturiko aurtengo erronka: «Eskolara, bizikletaz edo patinetez». Ekimen honen bitartez, eskolako bidea eremu jasangarri, osasungarri eta dibertigarria izatea da helburua. **Irailaren 16tik 30era**, ikasle eta irakasleek garraibide aktiboak eta ez-kutsagarriak erabiliko dituzte autoaren ordeiz. Helburua zera da,

hezkuntza-komunitateak kontzientzia hartzea zein garrantzitsua den karbono-isuriak gutxitzea eta txikitatik bizi-ohitura osasungarriak sustatzea, eta, horrez gain, bizikletaren erabilera segurua bultzatzea eta horretarako derrigorrezko segurtasun-elementuak eramatea (aurreko eta atzeko argiak, txirrina, kaskoa eta atzeko islagailua). **Mugikortasunaren etorkizuna martxan da!**

## MUTILOAKO HERRITARRENDAKO EGUR-LOTEAK



Lorezaintza Zerbitzuak egur-loteak eskaintzen dizkie Mutiloan Erroldaturiko herritarrei. Egurra herriko zuhaitzen inausketetan eta mozketetan bilduko da. Lote bakoitza 1 m<sup>3</sup>-koa izanen da, gutxi gorabehera 1 metroko enborrez osatua, eta 15 € balio du. Interesik izanez gero, deitu **948 012 012** telefono-zenbakira, **irailaren 30a** baino lehen. Etxebizitza bakoitzeko eskaera bakarra onartuko da. Zozketaz erabakiko da loteak zer ordenatan banatuko diren, loteen eskuragarritasunaren arabera. Webgunean argitaratuko da ordenaren berri, **urriaren 6tik** aurrera, eskatzailearen NANA adierazita. Egurra Lorezaintza Zerbitzuaren nabean jasoko da.

## NAFARROAKO KLIMAREN ASTEA 2026



Klimaren aldaketa erronka global bat da, eta ekimen lokal eta kolektiboak antolatu behar dira. **Nafarroako Klimaren Astea, urriaren 16tik 25era**, aukera aparta da herritarrak jasangarritasunaren gaiari buruz sentsibilizatzeko, hezteko eta mobilizatzeko. Horretarako, zenbait ekimen antolatu ditugu isuriak gutxitzeko, biodibertsitatea babesteko eta ingurua gehiago errespetatzen duten bizi-ereduetarako trantsizioa sustatzeko.

Anima zaitez prestatu ditugun jardueretan parte hartzera.

### Ezagutu ezazu klima-aldaketari buruzko funts bibliografikoa liburutegi publikoan

Nafarroako Klimaren Astearen harira, gai horri buruz hainbat ikuspegitatik mintzo diren oinarritzko liburuen hautaketa bat ezagutzera gonbidatzen zaitu Aranguren ibarreko liburutegi publikoak: zientziari buruzkoak, ekologiari buruzkoak, jasangarritasunari buruzkoak... Haur zein helduentzat. Gaur egungo ingurumen-arazoen aurrean, informazioa da gure tresnarik onena.



## HONDAKINEN PREBENTZIOAREN EUROPAKO ASTEA

**Azaroaren 21etik 29ra** izanen da Hondakinen Prebentzioaren Europako Astea (EWWR). Aurten, nahikotasun materiala sustatzea da asmoa, hau da, zenbat kontsumitzen dugun pentsatzea, ongi bizitzeko egiaz zer behar dugun aintzat hartuta. Gogoeta eginen dugu ea egiaz behar dugun produktu berri bat erostea edo ez ote litzatekeen aukera hobe hura alokatzea, partekatzea edo norbaiti uzteko eskatzea; kantitatearen gainetik kalitatearen alde egiteaz; eta zaborretara bota aurretik gauzei bigarren bizitza bat emateaz. **Jardueren agendan ikusiko duzunez, zenbait tailer antolatu ditugu.**

## ARANGUREN IBARREKO INGURUMEN-ARGAZKIEN LEHIAKETA 2026



Gero eta ikerketa gehiagotan, agerian ari da geratzen naturarekin harremanetan egoteak on egiten diola gure osasun fisiko, mental eta emozionalari. Aranguren ibarrean, naturaz inguratuak gaude. Horren harira, Ingurumen Argazkien Lehiaketa prestatu dugu, «Natura eta ongizatea» goiburuen pean, zaintzen gaituzten argazkiak egin ditzagun.

Argi utzi nahi dugu inspirazioa nonahi dagoela. Mendira joan ez arren, bada jendea bere etxeko leihoaren aurrean zuhaitz bat duena eta horrek goiza alaitzen diona. Hori ere natura da! Zure begirada lagungarria izan daiteke beste pertsona batzuek ere zaindu dezaten sendatzen gaituen hori. Parte hartzeko, bidali zure argazkiak (paisaiak, animaliak, landareak, etab.) hiru ezaugarri erraz hauek adierazita:

- › Tokia: argazkia non egin den.
  - › Zure esaldia: zer esan nahi duen zuretzat edo zergatik ematen dizun ongizatea edo zergatik den beharrezkoa irudian jaso duzuna babestea eta nola eginen zenukeen zuk.
- Oinarriak udal-webgunean daude eskuragarri. Argazkiak igortzeko epea **urriaren 16an** bukatzen da.



## TAILERRA: HIRIGINTZA ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA



Nola diseinatu hiriak modu erraz eta seguruagoan ibiltzeko, ingurumena errespetatuz? Tailer honetan,

haurrek ibilgailu txiki jasangarri bat eraikiko dute, material soil eta birziklatuak erabiliz, eta hiri jasangarri txiki bat ere diseinatuko dute.

Irailak 18, 17:00etatik 19:00etara.

Aranguren Ibarreko Liburutegi Publikoan, Kultur Etxean Adina: Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleak. Izen-ematea: 3 € Irakaslea: Cocokids.

## UDAZKENEKO SENDABELARRAK EZAGUTZEKO IBILALDIA ETA ESTRAKTU NATURAL BAT EGITEA



Sendabelar nagusiak ezagutzen eta bereizten ikasi ondoren, sasoiko landare baten estraktu natural bat prestatuko dugu, prozesuaren eta kontserbazioaren oinarriak aintzat harturik.

Irailak 22, 17:00etatik 20:00etara

Labiano. Gazte zein helduentzat Doako jarduera. Irakaslea: Ainitze Sala.

## ARROPA BIRZIKLATZEKO TAILERRA: PATCHWORK



Ba al dakizu botoi bat josten, kreamailera bat aldatzen, azpildurak josten edo urratuak konpontzen? Ekarri zure arropa eta lagunduko dizugu.

Irailak 25, 17:00etatik 19:00etara.

Kultur Etxea. Gazte zein helduentzat. Izen-ematea: 3 € Irakaslea: Silvia Martínez (PausaDaMente).

## IBILALDIA HERRIAN BARN: MUTILOAKO HAITZAK, FOSILAK ETA PAISAIA



Jarduera honetan, jatorri anitzetako haitz eta fosilak aurkituko ditugu fatxada, lurzoru eta frontoiei begiratuta, eta haien istorio geologiko liluragarrietan barneratuko gara.

Irailak 26, 11:00etan

(Gutxi gorabeherako iraupena: 2 ordu). Mutiloa. Doako izen-ematea. Gidaria: Humberto Astibia, biologoa.

## SUKALDARITZA-TAILERRA: SUSHI EKOLOGIKO BEGANOAK



Sushia osagai guztiekin prestatzen ikasiko duzu: arroz integrala, tofu eta tempeh marinatua, barazkiak eta saltsa. Horrez gain, informazio anitz jasoko duzu osagaiei eta sukaldaritza osasungarriari buruz.

Urriak 2, 18:00etatik 20:00etara.

Kultura Etxea. Prezioa: 5€ Irakaslea: Tina Asensio Biochef, sukaldaritza osasungarriko irakaslea.

## TAILERRA: ETXEAN, GAI TOXIKORIK EZ. AIRE-GOZAGARRIAK ETA KANDELA USAINTSUAK



Ikas ezazu argizarizko kandela ekologiko usaintsuak egiten, askotariko forma eta koloretakoak.

Urriak 5, 18:00etatik 20:00etara.

Kultur Etxea

Gazte zein helduentzat. Izen-ematea: 4 € Irakaslea: Daniel Rodríguez (Finca Domo Arbey).

Jarduera guztiek plaza mugatuak dituzte eta izena emateko hurrenkeraren arabera esleitzen dira

Erroldatu gabeko pertsonen izen-emate kuoten prezioa jardueretan agertzen den prezioaren bikoitza izango da.



## BARAZKIAK ERA EKOLOGIKOAN LANTZEN HASTEKO IKASTAROA



3 saioko ikastaroa, etxean kontsumitzeko barazkiak era ekologikoan lantzen ikasi nahi dutenentzat prestatua. Urriaren 9an, 16an, eta 23an; 18:00etatik 20:00etara.

Lekua: Kultur Etxea. Norentzat: gazte nahiz helduentzat.

Izen-ematea: 5 €

Irakaslea: Oskar Ibañez.

## TAILERRA: ARPILLERA BRODATUAK EGITEN IKASTEN



Bi saioko tailer artistikoa, arpilleraren ehungintza-teknika berreskuratzeko, oihal birziklatuak erabiliz.


Urriak 14 eta 21, 18:00etatik 20:00etara.

Kultura Etxea. Gazte zein helduentzat.

Izen-ematea: 5 €

Irakaslea: Giannina Molina.

## TAILERRA: ESTAZIO METEOROLOGIKOA



Nola aldatzen ari da klima eta zein dira horren eragileak? Tailer praktikoa, klimaren kontzeptua eta askotariko baldintza meteorologikoak neurtzeko era ezagutzeko.

Urriak 20 6 eta 9 urte arteko ikasleak; 17:00etatik 18:15etara; haizea, euria eta tenperatura neurtzeko gailuak sortzea.

10 eta 12 urte arteko ikasleak; 18:30etatik 20:00etara; neurketa-sistemak programatzea plaka elektronikoan, tenperatura, hezetasuna, presioa eta beste hainbat aldagai neurtzen dituzten sentsoreekin.

Liburutegi publikoa. Izen-ematea: 3 €

Irakaslea: Javier Liras, Kyokan-ekoa.

## HITZALDIA ETA DASTAKETA: KONTSUMITU TOKIKO PRODUKTU EKOLOGIKOAK KONTSUMO-TALDEEN BIDEZ



Zure kontsumitzeko modua aldatu nahi? Zatoz hurbileko produktu ekologikoei buruz antolatu dugun hitzaldi-dastaketara. Lehen eskutik ezagutuko duzu Mutiloako kontsumo-taldea: bitartekaririk gabe eta

tokiko garapena bultzatuz, bizi-ohitura osasungarriak sustatuz eta ingurumena zainduz. Bukatzeko, dastaketa goxo bat egingen dugu! Urriak 20, 18:00etan. Non: Gurutzearen kalera, 9 (Mutiloa). Sarrera askea.

## SENDABELARREN TAILERRA: GIBELA ZAITZEN



Tailer honetan, gibelaren funtzioak ezagutzeaz gain, gibelak ongi funtzionatzeko erabili izan diren landareak eta digestio aparatuari eta oro har gorputz osoari laguntzeko erremedio naturalak ezagutuko ditugu. Horrez gain, gure organismoa negurako prestatzen hasteko prozesua landuko dugu.

Urriak 15, 17:00etatik 20:00etara.

Jubilatuen kluba, Mutiloa Plazan. Gazte zein helduentzat Izen-ematea: 3 €

Irakaslea: Ainitze Sala.

## TAILERRA: ATERPE KLIMATIKOAK DISEINATZEN



Nola lagundu diezaguke arkitekturak berotik eta klima-aldaketatik babesten? Talde txikietan, parte-hartzaileek aterpe klimatiko baten miniatura diseinatu eta eraikiko dute, material berrerabiliekin, eta,

gero, eraikitakoa martxan jarriko dute.

Urriak 23, 17:00etatik 19:00etara.

Kultura Etxea. Norentzat: Lehen Hezkuntzako 4 mailatik DBHko 1. mailara bitarteko ikasleak.

Izen-ematea: 3 €

Irakaslea: Cocokids.



## FAMILIA-GINKANA MUGARTEA PARKEAN



Zatoz ginkana dibertigarri baten bidez Mugarteia parkearen sekretu guztiak ezagutzera. Urriak 24, 11:00etatik 13:00etara. Adin guztietako herritarrentzat

Euskaraz eta gaztelaniaz. Doako izen-ematea, baina parte-hartzaile kopuru mugatua. Irakaslea: Garrapoko ingurumen-hezitzaileak.

## MUTILOAKO BIGARREN ESKUKO AZOKA



Bigarren eskuko azokan, aukera izanen duzu saltzeko postu bat paratzeko edo, bestela, erostera etortzeko. Kontua arropari, liburuei, jostailuei eta beste hainbat objekturi

bigarren aukera bat ematea da, batzuek erabiltzen ez dutena beste batzuek erabil dezaten.

**HAURRENDAKO TAILERRA: ESKULANAK MATERIAL BIRZIKLATUAREKIN**

Urriak 25, 11:00etatik 13:30era.

Mutiloa plaza.

Postu bat paratu nahi baduzu: eman izena [www.mcp.es](http://www.mcp.es) webgunean, irailaren 21 tik urriaren 7ra.

## TAILERRA: ETXEAN, GAI TOXIKORIK EZ. AIRE-GOZAGARRI BEREZIAK



Ikasi armairuetarako, komunerako eta zaborrontzirako aire-gozagarriak egiten (usaina eta intsektuen prebentzioa), baita arropa usain-landareen eta espezieen bidez lurrintzen ere (bildu eta lehortu). Etxean izaten ahal

dituzun landareak, lurrin bereziak lortzeko.

Urriak 26, 18:00etatik 20:00etara. Non: Kultura Etxea. Gazte zein helduentzat.

Izen-ematea: 4 €

Irakaslea: Daniel Rodríguez (Finca Domo Arbey).

## ARROPA BIRZIKLATZEKO TAILERRA: KONPONKETAK ETA ERALDAKETAK



Ba al dakizu botoi bat josten, kremailera bat aldatzen, azpildurak josten edo urratuak konpontzen? Ekarri zure arropa eta lagunduko dizugu.

Urriak 30, 17:00etatik 19:00etara.

Kultura Etxea. Gazte zein helduentzat

Izen-ematea: 3 €

Irakaslea: Silvia Martínez (PausaDaMente).

## ARANGUREN IBARREKO JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK HITZALDIA: HURBILPEN BAT MUNDU MIKOLOGIKORA



Onddo mota nagusiak eta haien ezaugarriak.

Azaroak 6, 18:30, Liburutegi

Publikoa, Mutiloa.

## TXANGO MIKOLOGIKOA



Onddoak bildu, eta, ondoren, denon artean ikusi eta azalpenak emanen ditugu bildutako espezie nagusiei buruz.

Azaroak 7, 10:00etatik 14:00etara.

Irakaslea: Gorosti.

Jarduera guztiek plaza mugatuak dituzte eta izena emateko hurrenkeraren arabera esleitzen dira

Erroldatu gabeko pertsonen izen-emate kuoten prezioa jardueretan agertzen den prezioaren bikoitza izango da.



## TAILERRA: ETXEAN, GAI TOXIKORIK EZ. MIKADO AIRE-GOZAGARRIAK



Ikasi mikado aire-gozagarriak egiten, etxerako zein autorako, material ekologikoak eta osasungarriak erabiliz. Ontzi motak eta kolorazioa. Azaroak 9, 18:00etatik 20:00etara

Kultur Etxea. Gazte zein helduentzat.

Izen-ematea: 4 €

Irakaslea: Daniel Rodríguez (Finca Domo Arbey).

## ZUHAITZAREN EGUNA. AUZO-LANDAKETA



Zuhaitz bat landatu nahi zenuke? Zure ingurunea hobetzen lagundu nahi zenuke? Zuhaitz guztiek eskaintzen dituzten onurei esker, CO2 eta partikula kutsagarriak xurgatzen dira, itzala ematen

digute, temperatura jaisten dute, biodibertsitatea, osasuna eta ongizatea sustatzen dira...; hala bada, eman ezazu izena auzo-landaketan!

Azaroak 15, 11:00etan (lekua zehazteko dago).

Adin guztietako herritarrentzat

Izen-ematea doakoa.

## HITZALDIA: FOSILEN MEZUA



Fosilez eta fosilek kontatzen digutenaz gehiago jakin nahi? Paleontologiaz, hau da, fosilak aztertzen dituen zientziatz gehiago jakin nahi? Aranguren ibarreko fosilak ezagutu nahi? Hala bada, ez galdu hitzaldi interesgarri hau.

Azaroak 17, 18:30ean.

Liburutegi Publikoa, Kultura Etxea. Doako sarrera.

Irakaslea: Humberto Astibia, biologoa

## UDAZKENEKO BOTIKINA: EGIN ZEURE ARNESA ZAINTEZKO BALTSAMO NATURALA



Baltsamo usaintsu bat egiten ikasiko dugu, kongestioa arintzeko erremedio naturaletan oinarrituta, eta hainbat landare eta olio esentzialen propietateak ezagutuko ditugu. Azaroak 18, 17:00etatik 20:00etara

Kultur Etxea. Gazte zein helduentzat

Izen-ematea: 3 €

Irakaslea: Ainitze Sala

## TENSEGRITATE TAILERRA LEGO PIEZEKIN



Orekaren eta tentsioaren printzipioak ikasiko ditugu, zenbait eredu ikusi eta, ondoren, Lego piezekin tensegrity eskultura bat eginez.

Azaroak 20 gaztelaniaz, 16:30etik 18:00etara

Euskaraz, 18:15etik 19:45era.

Kultur Etxea. Norentzat:

Lehen Hezkuntzako 2. mailatik

5. mailara bitarteko ikasleak

Izen-ematea: 3 €

Irakaslea: Cocokids

## TAILERRA: COLLAGE-A FAMILIAN



Zatoz familiarekin materialak (papera, oihalak eta natura-elementuak) berrerabiltzeko sormen-tailer artistiko honetaz gozatzera.

Azaroak 26, 17:00etatik 19:00etara.

Haurrak helduek lagunduta

etorriko dira (gutxieneko adina: 6 urte).

Kultur Etxea.

Izen-ematea: 5 € familia-unitateko (azaroaren 19ra arte).

Irakaslea: Analy Castro.



## ARROPA BIRZIKLATZEKO TAILERRA: GALTZA BAKEROEN BIZIALDI BALIAGARRIA LUZATUZ



Ekarri zure galtza bakeroak, eta horiek konpontzen edo esku-poltsa nahiz bestelako osagarri bihurtzen lagunduko dizugu.  
**Azaroak 27, 17:00etatik 19:00etara.** Kultur Etxea. Gazte zein helduentzat  
Izen-ematea: 3 €  
Irakaslea: Silvia Martínez. (PausaDaMente).

## TAILERRA FAMILIAN: ARTEA ETA BIRTZIKLATZEA EGUBERRIETAN



Argi-apaingarri bat sortzen ahalko duzu, bigarren bizitza emanez CD kaxe eta birziklatzeko moduko beste hainbat material. **Abenduaren 22a, 17:00etatik 18:30etara.** Kultur Etxea. 6 urtetik goitiko gazteentzat, pertsona heldu batez lagunduta.  
Izen ematea: 5€ familia-unitatea.  
Irakaslea: Silvia Martinez, PausaDaMente.

## TAILERRA: EGUBERRIETAKO KOKEDAMAK



Ikasi laborantza-teknika japoniar honen nondik norakoak eta oinarriko zainketak.  
**Abenduak 14, 17:00etatik 18:30era.** Kultur Etxea.

Gazte zein helduentzat. Izen-ematea: 8 €  
Irakaslea: Goizargi Lacunza, lore-artean diplomatua.

## EGUBERRIETAKO LEGO-ROBOTIKA TAILERRA



Familiartean gozatzeko sormen-tailer honetan, haur eta helduek eskuz esku lan egingen dute Eguberrietako robotika-apaingarriak egiteko. Izen-emateak bikoteka egingen dira (haur bat eta heldu bat).

**Abenduak 18, 17:00etatik 18:30era.** Kultur Etxea.  
6 urtetik gorako haurrentzat.  
Izen-ematea: 5 € bikoteko.  
Irakaslea: Cocokids.

## TAILERRA: ETXEAN, GAI TOXIKORIK EZ. ERREGAILU ETA ERRADIADOREETARAKO AIRE-GOZAGARRIAK

Lurrinak ere erabiliko ditugu.  
**Abenduak 21, 18:00etatik 20:00etara.** Kultur Etxea  
Gazte zein helduentzat. Izen-ematea: 4 €  
Irakaslea: Daniel Rodríguez (Finca Domo Arbey)

## ARANGUREN IBARRA ZORIONTSU PROGRAMAREN BESTE HAINBAT JARDUERA



### HEZIKETA TALDE-OSASUNERAKO

Argibide gehiago eta izen-ematea Arangurengo Osasun Zentroan.

### ELIKADURA OSAGARRIA

0-12 Hilbete bitartean (PEDIATRIA) irailak 23.

### NOLA ERABILI OSASUN-KARPETA

Urriak 7.

### LEHEN SOROSPENA PERTSONA HELDUEKIN. OINARRIZKO BIZI-EUSKARRIA PERTSONA HELDUENTZAT

Urriaren 8an eta 15ean.

### AURRETIAZKO BORONDATEEN AGIRIA PRESTATZEKO TAILERRA

Urriak 28.

### LEHEN SOROSPENA PEDIATRIAN. OINARRIZKO BIZI-EUSKARRIA

Azaroaren 19an eta 26an.

### MENOPAUSIA BERRITIK ADITZEN

Hitzaldia eta tailerra; azaroaren 17a eta 24a eta abenduaren 1a.

Irakaslea: María Muñoz Cobo.

Argibide gehiago Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen buletinean